

KONTROL MOZIOA

Udan jaietako krisi-mahaia aktibatzeari buruzkoa

Reyes Carrere Zabala EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako kontrol mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa Pertsonen Zerbitzuen Batzordean 2021eko apirilaren 19an aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2008. urtetik aurrera, Donostiako Udaleko Berdintasun Sailak, uztailetik irailera, sexu erasoen aurkako sentsibilizazio-kanpainak egin izan ditu Donostiako herritar guztiarentzat zein bisitariarentzat. Zoritxarrez, 2020an, COVID19k eragindako pandemiak, Udalak programatutako jai guztiak bertan behera uztea ekarri zuen, eta Berdintasun Sailak, horren ondorioz, udako sexu erasoean kontrako kanpaina ez zuen aktibatu ere egin.

Urtebete daramagu pandemian, erabateko ziurgabetasunean murgilduta, eta egoera oso aldakorrean, kutsadura-indizeen gorabeherak gure egunerokotasuna etengabe markatzen dute... Hainbat mailatako konfinamenduak, osasun-neurriak, muga perimetralen aldaketak, elkartzeko debekuak... Ondorioz, oso zaila egiten zaigu udako agertoki zehatz bat irudikatzea. Gainera, kutsatze gorakada bete-betean, ziurgabetasun egoerari gehitu behar zaio Espainiako Gobernuak presidenteak iragarri duela alarma egoera maiatzaren 9an altxatuko duela.

Beraz, eszenatoki desberdinak aurreikusi dira, eta norberak udako aisialdiarekin zerikusia duten erabakiak ia momentuan bertan hartu beharko ditu: bidaiatu edo ez bidaiatu, jaiak izan edo ez, jai-ekitaldi batera joan ala ez, hiru edo bost lagunekin afaldu, hondartza, mendia eta abar.

Baina, bai, aurreikustekoa da, Udal Gobernuak Aste Nagusiari eta gainerako jaietara buruz hartuko duen erabakia alde batera utzita, iaz bezala, hondartzek eta eguraldi onak erakarrita jende asko pilatuko dela Donostian. Eta zoritxarrez, aurreratu dezakegu, baita ere, testuinguru horretan emakumeen kontrako erasoak izango direla.

Beraz, egoera honetan, udal gobernu honek ezin du inprobisatu edo itxaron beste erakunde batzuek zer agintzen dioten horren arabera jokatzeko. Eta horregatik uste dugu beharrezkoa dela, Berdintasun Sailaren bidez, indarkeria matxistaren aurkako udako kanpaina uda hontan aktibatzea, eta, logikoa denez, bizi dugun errealitate aldakorrera egokitzea. Horretarako, premia da jaietako krisi-mahaira deitzea, Donostiako IV. Berdintasun Planean adierazten den bezala.

Illo honetatik, nabarmendu behar da udako jaietako programa baten barruko jarduerak ez direla hilabete horietan eraso matxistak ugaritzearen arrazoi bakarra¹. Eta zentzu horretan, argitalpen batzuek dagoeneko ohartarazten dute pertsonen pilaketa eta jai-

¹ <https://www.isep.es/actualidad-psicologia-clinica/el-cambio-de-habitos-en-vacaciones-aumenta-los-casos-de-violencia-de-genero/>

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

giroa, baita beroa² ere, delitu horien gorakadan eragin nabarmena izan dezaketen elementuak direla³.

Horren inguruan galdetuta, zinegotzi ordezkariak, baikortzat jotzeaz gain, aitortu zuen ez zela inolako urratsik egin ildo horretan, eta ez zutela oraingoz horretarako asmorik.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari jaietako Krisi-Mahaia berehala aktiba dezala; azter dezatela egungo egoera eta udako hilabeteetan sor daitezkeen eszenatoki ezberdinak, eta diseina dezatela genero-indarkeriaren aurkako kanpaina bat, egungo errealitate horri egokituia.
2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari lehenbailehen elkar dadila Donostiako talde feministekin eta emakume elkarteekin, udako kanpainari buruzko irizpideak partekatzeko eta adostasunak bilatzeko.
3. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako Berdintasun Kontseiluko kideei jakinaraz diezaiela festetako Krisi Mahaian parte hartzen dutenen zerrenda, eta adieraz diezaiela zein irizpideren arabera hautatu diren foro horretarako.

Donostia, 2021ko apirilaren 23an

Reyes Carrere Zabala
EHBildu taldeko zinegotzia

2 https://www.sciencedirect.com/science/article/abs/pii/S0048969718324446?_docanchor=&_fmt=high&_origin=gateway&_rdoc=1&md5=b8429449ccfc9c30159a5f9aeea92ffb#bb0145

3 <https://www.newtral.es/efecto-acumulacion-en-violencia-machista-en-verano-son-asesinadas-mas-mujeres/20190807/>